

Xedapen Orokorrak

OSASUN SAILA

6002

AGINDUA, 2008ko urriaren 7koa, Osasun sailburuarena, ortopediako kabinetek eta ortopediak sortzeko, jardunean jartzeko eta bertan aldaketak egiteko baimenak arautzen dituen agindua aldatzeko dena..

1998ko martxoaren 17ko Aginduaren bidez ortopediako kabinetek eta ortopediak sortzeko, jardunean jartzeko eta bertan aldaketak egiteko baimenak arautu ziren. Ortopediako kabinetek eta ortopediak osasun-erloto establezimenduak dira eta, lokal batean, gaixo bakoitzari egokitutako produktu sanitarioak eskaintzen dituzte ortesien eta protesi ortopedikoen kategorietan, bai eta autonomia edo gaitasun fisiko urria daukatenen egoera arintzeko laguntza teknikoa eman ere. Horrelako establezimenduetan, gaixo bakoitzari egokitzeko beharrik ez duten osasun-produktuak eta laguntza teknikoa ere ematen dira, eta, beharrezko baimena izanez gero, ortesiak eta protesi ortopedikoak neurritara egiten dira.

Aipatutako aginduaren 4. artikularen arabera, ortopediako kabinete edo ortopedia guztiek asistentzia-jardueraren arduradun bat izan beharko dute, titulu hauetako bat izango duena: ortopediako teknikari- edo ortoprotesikako goi mailako teknikari-titulua edo dagoen erakundeak horietara homologatutako tituluak dituen profesionala. Gaur egun horrelako titulazio homologaturik ez dagoenez, lehenengo biak bakarrik izango dira baliagarriak.

2002. urtean maiatzaren 10eko 437/2002 Errege Dekretua argitaratu zen; horren bidez, neurritara egindako produktu sanitarioen egileei jarduera-lizentziak emateko irizpideak ezarri ziren. Errege dekretu hori indarrean jarri ostean, horrelako produktuak egiteko lizentziak eman edo ukatzeko eskumena Osasun eta Kontsumo Ministeriotik autonomia-erkidegoetara pasatu zen. Halaber, une horretatik aurrera, bestelako unibertsitate-tituludunak ere aritu daitezke neurritara egindako produktu ortopedikoen asistentzia-jarduerako arduradun, baldin eta ortopediarekin lotutako zenbait arlotan prestakuntza berezitu osagarria egiaztatzen badute. Osasun Sailak, hala ere, ezin die baimenik eman produktuen fabrikazioa zuzentzen aritzen direnei produktu horien salmentako arduradun ere izateko, eta egoera horrek konponbidea behar du.

Egoera horri bukaera emateko, 1998ko martxoaren 17ko Aginduaren 4. artikulua aldatu behar da, produk-

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

6002

ORDEN de 7 de octubre de 2008, del Consejero de Sanidad, de modificación de la Orden reguladora de las autorizaciones de creación, de realización de modificaciones y de funcionamiento de los Gabinetes Ortopédicos u Ortopedias.

Mediante Orden de 17 de marzo de 1998 se regularon las autorizaciones de creación, de realización de modificaciones y de funcionamiento de los Gabinetes Ortopédicos u Ortopedias, que son los establecimientos sanitarios que, en un local determinado, dispensan con adaptación individualizada al paciente productos sanitarios comprendidos dentro de las categorías de órtesis y prótesis ortopédicas, así como ayudas técnicas destinadas a paliar las pérdidas de autonomía o capacidad física de los usuarios. En estos establecimientos sanitarios se pueden dispensar también productos sanitarios y ayudas técnicas que no requieran adaptación individualizada al paciente e incluso, si cuentan con la oportuna autorización, fabricar órtesis y prótesis ortopédicas a medida.

Según el artículo 4 de la Orden, estos establecimientos deben contar con un responsable asistencial que sea Técnico Ortopédico, Técnico Superior en Ortoprotésica u otro profesional que se encuentre en posesión de titulaciones homologadas a éstas por el organismo competente. Puesto que al día de hoy no existen tales titulaciones homologadas, sólo resultan válidas las dos mencionadas.

En el año 2002 se publicó el Real Decreto 437/2002, de 10 de mayo, por el que se establecen los criterios para la concesión de licencias de funcionamiento a los fabricantes de productos sanitarios a medida. A partir de su entrada en vigor ya no es el Ministerio de Sanidad y Consumo quien debe conceder o denegar las licencias de fabricación de estos productos, sino las Comunidades Autónomas. También a partir de ese momento pueden ser responsables asistenciales de la actividad de fabricación a medida de productos ortopédicos las personas poseedoras de otros títulos universitarios que acrediten una formación especializada complementaria en ciertas materias relacionadas con la ortopedia. El Departamento de Sanidad, sin embargo, no puede autorizar a estas personas para ser responsables asistenciales de la dispensación de los mismos productos cuya fabricación dirigen, lo que no deja de ser una situación anómala.

Para ponerle fin es preciso modificar el artículo 4 de la Orden de 17 de marzo de 1998, de forma tal que

tu ortopedikoak neurritik egiteko prestakuntza dutenei aukera emateko ortopediako kabinetean edo ortopedien asistentzia-jarduerako arduradun ere izan daitezten.

Alde horretatik, artikulua honetan jasoko denez, titulaziorik izan ez baina martxoaren 1eko 414/1996 Errege Dekretuaren hamargarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan eskatzen den esperientzia dutenak aipatutako jarduerako arduradun izan daitezke (414/1996 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, produktu sanitarioak arautzen dituena). Izan ere, Osasun Sailak onartzen zuen aukera hori lehendik ere, hain zuzen ere abenduaren 18ko 2727/1998 Errege Dekretua indarrean jarri zenetik.

Horiek horrela, hauxe

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.— Ortopediako kabinetek eta ortopediak sortzeko, jardunean jartzeko eta bertan aldaketak egiteko baimenak arautzen dituen Osasun sailburuaren 1998ko martxoaren 17ko Aginduaren 4. artikulua honela geratuko da idatzita aurrerantzean:

«4. artikulua.— Langileen betekizunak.

Ortopediako kabinete edo ortopedia guztiek honelako profesional bat izan beharko dute: ortopediako teknikari edo ortoprotesikako goi mailako teknikari tituludun bat edo erakunde eskudunak horietara homologatutako tituluak dituen profesionala edo neurritik egindako ortopediako produktuak egiteko arduradun tekniko izateko tituluak dituena maiatzaren 10eko 437/2002 Errege Dekretuan jasotzen den prestakuntza berezituarekin osatuta. Titulaziorik ezean, profesional horrek 414/1996 Errege Dekretuaren hamargarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan eskatzen den esperientzia izan beharko du (414/1996 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, produktu sanitarioak arautzen dituena). Eta, hain zuzen ere, esperientzia hori egiaztatu behar du aipatutako Errege Dekretua aldatu zuen abenduaren 18ko 2727/1998 Errege Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera.

Profesional hori asistentzia-jardueraren arduraduna izango da, indarrean dagoen legediak elkargoen arloan ezarritako betekizunak konplitu beharko ditu, hala badagokio, eta jendaurreko orduetan etengabe egon beharko du lantokian.

Gainerako langileak arduradunaren menpe ariko dira, eta hauek ere euren eginkizunak betetzeko beharrezko titulazioa izan eta indarrean

quienes estén cualificados para la fabricación a medida de productos ortopédicos puedan también ser responsables de la actividad asistencial de los Gabinetes Ortopédicos u Ortopedias.

También se recoge expresamente en este artículo la posibilidad de que sean responsables de dicha actividad las personas carentes de titulación pero poseedoras de la experiencia prevista en el apartado 2 de la disposición adicional décima del Real Decreto 414/1996, de 1 de marzo, por el que se regulan los productos sanitarios, algo que el Departamento de Sanidad ya venía admitiendo desde la entrada en vigor del Real Decreto 2727/1998, de 18 de diciembre.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo único.— El artículo 4 de la Orden de 17 de marzo de 1998, del Consejero de Sanidad, por la que se regulan las autorizaciones de creación, de realización de modificaciones y de funcionamiento de los Gabinetes Ortopédicos u Ortopedias queda redactado como sigue:

«Artículo 4.— Requisitos de personal.

Los Gabinetes Ortopédicos u Ortopedias deberán contar con una persona que se encuentre en posesión del título de Técnico Ortopédico, Técnico Superior en Ortoprotésica u otro homologado a éstas por el organismo competente o de una de las titulaciones requeridas para ser la o el responsable técnico de la fabricación de productos de ortopedia a medida complementadas con la formación específica a que se refiere el Real Decreto 437/2002, de 10 de mayo. A falta de titulación, esta persona deberá poseer la experiencia exigida por el apartado 2 de la disposición adicional décima del Real Decreto 414/1996, de 1 de marzo, por el que se regulan los productos sanitarios, y acreditarla de conformidad con lo establecido en la disposición transitoria segunda del Real Decreto 2727/1998, de 18 de diciembre, por el que se modifica el anterior.

Esta o este profesional será responsable de la actividad asistencial, deberá cumplir los requisitos de colegiación exigidos, en su caso, por la legislación vigente, y su presencia será permanente y continuada durante el horario de atención al público.

El resto de personal del centro actuará siempre bajo la supervisión de la o del responsable de la actividad asistencial. Asimismo, dicho per-

dagoen legediak kasuan kasu eskatzen dituen elkargo-agiriak eduki beharko dituzte.»

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 7a.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.^a INCLÁN IRIBAR.

sonal deberá estar en posesión de la titulación adecuada para el desarrollo de las funciones que tenga asignadas y cumplir, en su caso, los requisitos de colegiación que sean exigibles según la legislación vigente.»

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de octubre de 2008.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.^a INCLÁN IRIBAR.